

TOLOSA ▶

Inauterietako
lehiaketak,
adostuta

Festa Batzordean
adostu dituzte ▶ 4



Gabonetako Azoka Berezia, etzi egun osoan zehar Tolosako plazetan

BERRIKUNTZA ▶ Plaza Berria «aisialdirako zentro handia» bihurtuko da etzi, goiz eta arratsaldez ▶ 3



Saharako herria egoera zailean dago

TOLOSALDEA ▶ Ez atzera, ez aurrera aurkitzen da gaur egun Saharako herria, egoera zailean, baina itzaropena galdu gabe. Librea noiz izango ote den amesten du. Iristen zaio laguntza kanpotik, baina gutxitzen joan da azken urteotan. «Bake planera nola heldu bilatu nahi dugu, eta Marokok zeresan handia du», adierazi dio HITZari Oman Mansor Aaiungo gobernandoreak. INIGO TERRADILLOS ▶ 2



JAIONE ASTIBIA

Eskolako teilatua berritu behar dute laster

ARESO ▶ Erasone etxean emango dituzte eskolak lanek irauten duten bitartean; 125.000 euroko aurrekontua dute lanek ▶ 7

Bihar Patxi Saiz abeslariak 'Galdetzen' eskainiko du

VILLABONA ▶ Getariarraren azken diskoa da; musika melodikoa da nagusi lan honetan ▶ 5

hitza

lagunen
txokoa

'Lagun ezazu HITZA laguntzen'

- ▶ HITZA laguntzen duten harpidedunen artean **KAPRITXO**k oparitutako arropa eta osagaiak zozketatuko ditugu

KAPRITXO

Landabeikoa z/g • LEITZA
Tel.: 948 51 09 94



SAHARA (III) ▶



Iragana eta etorkizuna

Egoera zailean aurkitzen da Saharako herria uneotan; ez atzera ez aurrera herritarren itxaropena galdu gabe

IÑIGO TERRADILLOS/
DCHERA(SAHARA)

Laguntzak ematen diren lurraldeen historian atzera egitea beharrezkoa izaten da. Horrela, dituzten arazak hobeto uler daitezke, eta batez ere, nola iritsi diren dauden egoerara jakiten laguntzen du.

Afrikako herrialdea da Sahara, eta Maroko eta Mauritaniaren artean dago. 1884tik 1975 urte bitartean Espainiaren kolonia izan zen. XX. mendeko 60ko hamarkadan Afrika hainbat herrialde hasiak ziren deskolonizatzen eta independentzia eskuratzen. Orduan sortu ziren sahararren lehendabiziko talde armatu independentistak. Nazio Batuen Erakundeak (NBE) sahararren autodeterminazio eskubidea onartu eta Espainiari deskolonizatze eskatu zion, baina honek ez zuen amore eman nahi. Horren aurrean, borroka armatuari ekitea erabaki zuen saharar talde batek. 1973an Polisario frontea sortuz.

Maroko zen sahararrentzat beste etsai handia; hau lurraldeak eskuratze estrategia ari zen prestatzen, Espainiak alde egingo zuela gero eta argiago zegoela eta Franco hil zorian zela kontuan hartuz.

Espainiak ez zuen arazorik nahi eta 1975ean, Maroko eta Mauritaniarekin akordioa sinatu ondoren, lurralde hauek hartu zuten mendean. NBEk, bere aldetik, ez zuen inoiz akordio hori eta inbasioa onartu. Ondorioz, sahararrek alde

egin beharra izan zuten Aljeriari utzitako desertu zatira eta ehunka lagun hil ziren hara joateko bidean.

Mauritaniak azkenean Polisarioarekin bakea sinatu zuen, baina Marokok ez du inoiz horretarako borondaterik azaldu. Gainera, Frantziaren eta AEBen laguntzaz Saharako lurralde okupatuak eta liberatuak banatuko zituen horma eraikitzeari ekin zion.

Bitartean, su etena lortzeko negoziazioek aurrera egin dute; Marokok, itxuraz onartu zuen Saharako autodeterminazio erreferendum bidez erabakitzea, baina ez da gauzatu.

Denbora aurrera doa sahararren kalterako, eta ez dirudi honek berehalako konponbiderik duenik.

Itxaropen handia

Saharar herria, itxaropen handia duen herria da, eta Sahara librea noiz izango den zain daude. Desertuan euren lurretatik kanpo bizi direnez kanpotik iritsitakoekin bizi dira batez ere. Mundu osotik iristen zaie laguntza: ACNUR, Gurutze Gorria, Ilargi Gorria, GKEak eta Saharako Herriarekiko Elkartasunerako Elkartek.

Hala ere, eta protokolo zuzendariak Tolosaldea Saharako elkarteko kideei eta Tolosaldeko Udaleko zinegotziari eta Laskorain Ikastolako ordezkariari aipatu zion bezala, azken urteotan janari ekarpen guxtiago egin denez, hornidura eten egin izan da sarritan. AC-

NURek errefuxiatuen kanpamenduetako bizitza baldintzei eusteko politikaren ardura izanda, legamia eta tea baino ez ditu hornitzen eta hauentzat aurrekontua murrizten ari dira, ustez kanpamenduok lehentasunik ez dutelako.

Honi aurre egiteko, urtero bezala elkartasun karabana abian da Saharako Herriarekiko Elkartasun Elkarteei esker Saharako herriari laguntzeko xedearekin sortua eta Euskal Fondoak elkarrekin bultzatua.

Bihar. Saharara eramandako beste laguntzak.



Brahim Mojtar protokolo zuzendariari proiektua azaltzen. I.TERRADILLOS

OMAR MANSOR ▶ AAIUNGO GOBERNADOREA

«Bake planera nola heldu bilatu nahi da, eta Marokok zeresan handia du»



I.TERRADILLOS

Tolosaldeko Saharako elkarteko koordinatzailea, Tolosaldeko Udaleko zinegotzia eta ikastolako ordezkaria Aaiunen izan diren egunetan bertako gobernadorearekin izan dira, hezkuntza proiektuaren berri izateko; HITZA ere jardun zen solasean Omar Mansor-ekin eta egungo egoeraz hitz egin zion.

Nola da gaur egungo sahararren egoera?

Kofi Annan-en Saharako ordezkari James Baker-en planak ez ditugu onartu. Autonomia eredu bat planteatzen zen, baina independentzia lortzeko aukera ezabatuz, eta Marokok

argi utzi du lurraren jabetza berea dela.

Zer egin orduan hemendik aurrera?

Geldialdi batean aurkitzen gara orain eta bake planera nola heldu bilatu nahi dugu. Bitartean, sahararrek egunero borrokan jarraitzen dute erresistentzian. Bestalde, parlamentuaren egitura indartzen ari gara eta egun hauetan alkateak aukeratzeko hauteskundeak egingo ditugu. Eta aldi berean gerrarako prestatzen ari gara, beti ere gure Sahara libre ikusi arte eta gurea izan arte.

hitza

txokoa

▶ HITZAren HARPIDEDUN TXARTELAREKIN %5*-eko BEHERAPENA izango duzuzure EROSKETETAN

*Promozio hau ez da beste beherapenei gehituko eta eskura ordaindutako erosketetan bakarrik aplikatuko da

▶ Txartela HITZAren harpidedun laguntzaileek eskuratuko dute

'Lagun ezazu HITZA laguntzen'

▶ DENDA HAUEK HITZAREN LAGUNTZAILEAK DIRA

Avalon
o s a g a i a k
korreo,11 • Tolosa • Tel.: 943 67 51 02

Gudari kalea, 5 • TOLOSA
Tel.: 943 65 04 62

ILUMINAZIOA

honekin

TOLOSA
Tel.: 943 65 24 30

kanikak

San Frantzisko, 21 • Tolosa
Tel.: 943 65 27 46

SHANTI KIROLAK

Rondilla, 11
TOLOSA
Tel.: 943 67 40 74

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZA laguntzen duten harpidedunen artean zozketak astero

ZINE-KLUBA ▶

'Memories of murder' filma gaur, Leidorren

Tolosako zine-klubak ostegunero eskaintzen dituen filmen harira, Bony Joon-Hoo zuzendariaren *Memories of murder* (*Cronica de un asesino en serie*) izeneko lana ikusteko aukera izango da gaur, 21:30etik aurrera, Leidor zinema antzokian. Iazko Donostiako Zinemaldian, hain zuzen ere 2003koan, zuzendaritzak emandako zilarrezko Kontxa eta FIPRESCI saria irabazi zituen Hego Korean ekoitziako filmak. Gogorki bortxatutako eta erahildako emakume baten gorputza azaltzearekin batera hasten da filma.

GIZARTEA ▶

Bazkari herrikoa, Bonberenearen urteurrenean

Bonberenean urteurrena beteko du etzi, hilaren 18an, eta bertako kideek ospakizumetara gonbidatu nahi dituzte herritar guztiak. Lehenik eta behin kalejiran irtengo dira Bonbereneako kideak txar-rangekin, eta gero, bazkari herrikoa egingo dute Bonberenean bertan. Bazkariko txartelak lortu ahal izateko 12 euro ordaindu beharko dira, han bertan, bazkalorduan. 14:00etarako egin dute hitzordua ekimenaren antolatzaleek, eta hala nahi duten guztiei bertara joateko gonbita luzatu diete.

POLITIKA ▶

Estatutu politiko berriari buruzko solasa, iluntzean

Uzturre Fundazioak antolatuta, Estatutu politiko berria hitzaldia eskainiko dute gaur, 20:00etatik aurrera, Antonio Maria Labaien kultur etxean, EAJko Gipuzko Buru Batzarreko lehendakari Joseba Egibarrek eta Eusko legebiltzarkide Elixabete Piñolek. Antolatzaileren helburua zenbait gai buruzko goeta sustatzea da, bereziki, betiere, «ikuspuntu ezberdinetatik» aztertuta: «Euskal Herrian bizitzen ditugun gairiak etorkizunerako garrantzitsu aski direlakoan gaude. Horrexegatik, une egokia da hori guztia jakiteko, eta, bide batez, proposatutako eztabaidan parte hartzeko.

GABONETAKO AZOKA BEREZIA ▶

Egun osoan iraungo du Gabonetako Azoka Bereziak larunbatean

Trianguloan, Zerkausian eta Plaza Berrian jarriko dituzte postuak; askotariko produktuak eta kalitatekoak izango dira

IRATXE ETXEBESTE

«Tolosako azken Babarrunaren Azokaren oihartzuna ikusita, Gabonetako Azoka Bereziako antolatzaleek Euskal Herriko produktu onenak erakusteko konpromisoa hartu dugu, eta, hortaz, urtean zehar hango eta hemengo azoka tematikoetan parte hartzen dutenen produktuak merkatu bakar batean ikusteko aukera izango dute herritarrek larunbatean». Halaxe adierazi diote HITZARI Tolosako Udaleko Garapen, Enplegu eta Turismo saileko arduradunek aurtengo Eguberrieta-ko Azokari buruz galdetuta.

Erosteko moduan izango diren produktuak kalitateagatik eta aniztasunagatik bereizten direla diote Gabonetako Azoka Bereziako antolatzaleek. Bertako artisautzaz gain, nazioarteko artisau produktu onenak jarririko dituzte ikusgai eta salgai, eta baita landareak, Gabonetako ohiko apaingarriak eta elikagaiak eta Tolosako konfiteriaren erakusketa zabalda ere.

Urtero bezala, herriko gune ezberdinetan jarriko dituzte postuak merkatariek eta artisauak larunbatean, baina aurtengoan garrantzia berezia eman nahi izan diote antolatzaleek Plaza Berriari, 150 metro luzean egongo diren postuetan «Tolosaldeko komertzioaren aberastasuna eta aniztasuna» ikusteko aukera izango dela uste dutelako.

Zaharberitze prozesua dela-eta tolosarren «gune kuttunetako» bilakatzen ari da Plaza Berria Tolosako Udaleko arduradunen aburuz, eta horregatik indartu nahi izan dute herriko leku hori aurtengoan. Gainera, goizetik eguerdira bakarrik ez, eta egun osoan izango dira zabalik bertako postuak, Plaza Berria «aisialdirako zentro handi bat bailitzan». Egun osoan zehar hara eta hona jardungo duten kale animazio ekitaldiak lagungarri izango dira, halaber, Gabonetako Azoka Bereziak irauten duen artean herrian giro atsegina sortzeko.

Trianguloan eta Zerkausian urteroko moduan izango diren



Lehendabizikoz, egun osoan izango da aurtengo Gabonetako Azoka. i.e.

lehiaketek jantziko dute aurtengo Gabonetako Azokaren edizioa. Italian, Turingo *slow food*, nekazaritza eta elikagaien azokan izan berri da Peio Urdapilleta bidegoiandarra Euskal Txerria nazioartean zabalitzen. Bada 1.500 ikusleen eta 2.500 kazetari baino gehiagoren aurrean erakutsitako ekoizpena Tolosan izango da ikusgai larunbatean, Euskal Txerrietatik ateratako produktuekin batera, Euskal Txerriak ere eramango dituelako Urdapilletak, Tolosaldeko herritarrek ezagutu eta eros dituzten.

Girotzeko, Gabon kantuak

Ertamerikako eta Euskal Herriko Gabon kantuak izango dira entzungai azoka gune ezberdinetan egun osoan, antolatzaleek iragarri dutenez. «Era horretara, eta Eguberrien atarian gaudenez, girotzen hasteko aukera izango dugu». Gainera, eskualdeko hogeitauko jolek eta bibolinjolek osatutako konpartsa batera eta bestera jardungo du arratsaldean herrian zehar, eta, «beste behin, Tolosa Euskal Herriko musikaren hiriburu bilakatuko da».

AZOKA BEREZIA ▶

PLAZA BERRIAN

12:00. Samaniegoko ikasleek kontzertua eskainiko dute, haien CDko kantak aurkeztuz. **Goiz osoan.** Haurrentzako keramika tailerra jarriko dute Arantxa Munitak eta ikasleek. **17:00.** Haurrek postala bidali ahal izango diote Olentzerori Tolosako dendetan utzita. Irazki elkarteak opariak eskuz egiteko aukera eskainiko du: trapuzko panpinak, kasu. Haur jolasak ere haiek antolatuko dituzte.

TRIANGULOAN

▶ **Odolki lehiaketa.** **09:00.** Suak piztuko dira, Udalak eta San Blas elkarteak antolatutako lehiaketa irabaziko duen odolki prestatzeko. Jarraian, odolkiak dastatzeko aukera izango dute herritarrek. **20** harategijk hartu dute parte aurtengoan. **13:30.** Sari banaketa. ▶ **Euskal Txerria.** **Goizean.** Bidegoiango Peio Urdapilletak Euskal Txerriaren 103 bururen 140 urdiazpiko, xolomo, 2.500 kilo hesteki, lukainka... eramango ditu.

ZERKAUSIAN

Goizean. Fruta, barazki, Errezilgo sagar, postu onena eta produktu eskaintza handiena lehiaketak. **11:00.** Lehiaketaren sari banaketa egingo dute.

Tolosako Udala
ENKANTEA

Tolosako Udal Batzarrek, 2004ko abenduaren 1ean, Usabal Iparaldeko kiroldergia energia elektriko hornitzeko obrak esleitzeko klausula administratiboen agiria onartu zuen.

- 1.- Helburua: Usabal Iparaldeko kiroldergia energia elektriko hornitzeko obraren kontratazioa.
- 2.- Litzitazioaren zenbaterako: 196.509,08 (BEZa barne)
- 3.- Lanak egiteko epea: 2 hilabete
- 4.- Espedientea ikusteko: Kopibat (Lizardi plaza 2), telefonoa 943 65 51 66.
- 5.- Behin-behineko fidantza: 3.930,00
- 6.- Behin betiko fidantza: 7860,00 €
- 7.- Enpresen sailkapena:

TALDEA	AZPITALDEA	MAILA
A	2	A
G	4	A
G	5	A
K	4	A
K	6	A
I	6	A
J	4	A

8.- Eskaintzak egiteko epea eta tokia: Tolosako Udaltxeko Sarrera Erregistroan (Plaza Zaharra, 6 B) 2005 urtarrilaren 10, eguerdiko 13:00k arte.

Tolosan, 2004ko abenduaren 15ean
ALKATEA

TOLOSA LANTZEN, SA
Lehiaketa

Tolosa Lantzen SA-ko Administrazio Kontseiluek, 2004ko abenduaren 2an, onartu du baldintza administratibo partikularren agiria, Centro Deportivo-Recreativo Usabal-Usabal Kiroli eta Aisialdi Gune (UKAG) Instalazioen eta Funtzionamenduaren Kudeaketa Integrala adjudikatzeko.

- 1.- **Helburua.** Centro Deportivo-Recreativo Usabal-Usabal Kiroli eta Aisialdi Gune (UKAG) Instalazioen eta Funtzionamenduaren Kudeaketa Integrala adjudikatzea.
- 2.- **Kanona.** Urteko hasierako gutxieneko kanona 228.000 eurokoa da (BEZa erantsi behar zaio). Urtero berrituko da Kontsumorako Prezioen Indizeak (KPI) izan duen aldaketaren arabera. Indize hori izango da Euskal Autonomia Erkidegoko aurreko urteko ekitaldiak izan duena, eta ondorioak izango ditu hasierako urtearen ondorengo urte naturalaren lehen egunetik aurrera. Kanon horrek lizitazio-tipo iaera du eta lizitatzaleek hobetu dezakete.

Kanonaren zenbaterako TOLOSA LANTZEN SA-ri ordaindu behar zaio. Urtean hiru epetan ordainduko da, urte natural bakoitzeko lauhileko bakoitzeko lehen hilabeteko lehen hogei bost egunen barruan, 2005ari dagokionez, zati proportzionala ordainduko da, adjudikatzen denetik abendura bitarte.

- 3.- **Kontzesioaren iraupena.** Hamar (10) urte iraungo du, adjudikatze kontratua sinatzen denetik kontatzen hasita. Behin baino ezin izango da luzatu, gehienez ere beste bost (5) urte.
- 4.- **Dokumentazioa.** Baldintza-agiria eta gainontzeko dokumentazioa helbide honetan dago: Kopitec, Gudari kalea 8. Telefonoa: 943 654 028
- 5.- **Behin-behineko bermea.** 3.000,00
- 6.- **Behin betiko bermea.** 120.000,00
- 7.- **Proposamenak egiteko eredu.** Baldintza-agiriaren agertzen dena.
- 8.- **Proposamenak aurkezteko lekua eta epeak.** TOLOSA LANTZEN SA-ren egoitza: Tolosako Plaza Zaharra 6-B, 2005eko urtarrilaren 10 arte, ordutegia 09:00-14:00

Proposamena korreoz bidaltzen bada, interesdunak egiaztatu egin beharko du, dagokion agiriarekin, posta-bulegotek zer egunetan bidali duen, eta Kontratazio-Organoiari adierazi, egun horretan bertan, fax (943 69 75 02), tek edo telegrama bidez, proposamena bidali duela. Baldintza horiek betetzen ez badira, proposamena ez da onartuko.

- 9.- **Kartazalaz non eta noiz ireriko dira.** Kartazalaz TOLOSA LANTZEN SA-ren egoitza sozialean (plaza Zaharra 6-B) ireriko dira, proposamenak aurkezteko epea bukatu eta laugarren egun baliidunean.

Tolosan, 2004ko abenduaren 13an,
TOLOSA LANTZEN SA-ko lehendakaria
Sin.: Jokin Bildarratz Sorron

POLITIKA ▶

Gabonetan ere 'apartheid' egoera salatuko du TB-ek

Itxialdia, bilkura eta bazterketaren aurkako postalen banaketa egingo dituzte plataformakoek

L. MONTES

«Herriarrek hasitako bideari jarraipena emateko hartutako konpromisoari eutsiko» ziotela azaldu zuten Tolosa Bizirik-eko (TB) udal ordezkariak hilaren 18an emandako prentsaurrekoan. Eskakizun hori Udaleria eramango zutela ere berretsi zuten. Hala, hilaren 30ean egitekoa zen osoko bilkuran mozioa aurkeztu zuten: «Ez zen, ordea, egun horretan eztabaidatu, alkateak eta gainontzeko zinegotziek ez zutelako nahi izan, nonbait dagokigun tokian eseri izanak bakarren bateri kontraesan handiegiak sortzen dizkiolako edo». Batzarra bertan behera geratu zen, eta TB-koen esanetan, «hurrengo

egunean, goizean goiz, eta guri eztabaidako aukerarik eman gabe, mozioa bere osotasunean atzera bota zuten».

Plataformakoek iritziak, «ez da ezer berririk Tolosako Udalerian. Egun herriak duen arazo politiko nagusia konpontze-ari muzin egin diote. 2.500 herritarren ordezkariak uko egin diote. Herriarren laurdena ordezkariak politikorik gabe baldin badago ere, ez du axola; EAJ, EA, IU, PP eta PSOE ez daude arazo horri konponbidea emateko prest. Zertarako, etekina besterik ateratzen ez badute?».

«Apartheid egoera amaitu dadin exijitzeko» zenbait ekimen antolatuta dituzte orain TB-ekoek, Gabonei begira. Bihar



TB-eko ordezkariak: Ortiz, Izagirre, Aldalur, Iztueta eta Espin. L. MONTES

iluntzean plataformako bost Udal ordezkariak itxialdia hasiko dute udaletxean, etzi 12:00ak arte; orduan emango dute itxialdia amaitutzat, eta bilkura egingo dute: «Parte hartzeko deia egiten diegu tolosar guztiei».

Egun berean, larunbatean, herriko hainbat puntutan mahaiak jarri eta *apartheid*-aren aurkako postalak banatuko dituzte. Etxeetara ere bidaliko dituzte datorren astetik aurrera. «Nahi duen guztiak Tolosako alkateari postal hori bidali die-

EKIMENAK ▶

Itxialdia. Bihar iluntzetik etzi eguerdira arte, udaletxean.

Bilkura. Etzi, 12:00etan, udaletxe aurrean.

Postal banaketa. Etzi, herriko zenbait puntutan jarriko dituzten mahaietan; ondoren, etxex etxe.

zaioko Eguberrietan. Postal honen bitartez alkateari gogorazi nahi diogu ez dela ezertxo ere egiten ari 2.500 tolosarrekin pairatzen duten bazterketarekin amaitzeko; eta horregatik, postalean jartzen duen bezala, Olentzerok ikatza ekarriko diola, 2.500 herritarren eskubideen urraketaz aprobetxatzeak ez baitu besterik merezi».

Salaketa egiteaz gain, egoerari konponbidea bilatzeko «elkarrizketarako borondatearekin eta beti eskua luzatzeko prest» jarraitzen dutela azpimarratu dute TB-ekoek.

INAUTERIAK ▶

LEIRE MONTES

Inauteriak ohi baino goizago iritsiko dira 2005ean, eta inauterizaleek prestaketei ekin die dagoeneko. Festa Batzordeak ere egin ditu jada hainbat bilera; herenegun azkena. Bes-teetan bezala, proposamen berriak eta eztabaida ez ziren falta izan; azkenean, baina, lehiaketaren oinarriak adostu zituzten karrozetako, konpartsetako eta Udaleko ordezkariak. Berriturik dator aurtengo lehiaketa. Hauexek dira oinarriak:

Parte-hartzaileak. Edozein pertsonak edo taldek har dezake parte lehiaketan; adinak edo nazioak ez dio axola.

Taldeak.

▶ Karrozak: egun batean ateratzen direnak eta bi egunetakoak.

▶ Plataformadun konpartsak: egun batekoak edo bikoak.

▶ Konpartsak: A, 25 kide baino

Lehiaketako oinarriak adostuta

Karrozetako eta konpartsetako bost ordezkariak eta Udaleko bik osatuko dute epaimahaia; zortzi multzotan banatuko dira taldeak, eta zortzina txapel sari gisa

gehiago; B, 13-25 kide; C, 6-12 kide; D, 1-5 kide.

Herenegungo bileran adostu zuten banaketa hau, karrozetako eta konpartsetako ordezkariak ala eskatuta. Haien esanetan, «egun batean ateratzen direnen edo bi egunetan egiten dutenen artean desberdintzea oso garrantzitsua da, ez baita gauza bera. Dirua da guretzat: musika ekipoaren alokairua, traktorea...». Konpartsen atalean, berriz, egunen desberdintasuna baino jende kopuruarena egitea «egokiago» ikusi zuten ordezkariak.

Izen-ematea. Zabalik da izen-ematea, udaletxean; izena ema-

terakoan zenbaki bat jasoko dute parte-hartzaileek, eta karrozaren edo konpartsan jarri behar dute, ikusteko moduan.

Epaimahaia. Hauxe izan da aurtengo beste berrikuntza. Karrozetako eta konpartsetako ordezkariak Jai Batzordearen lehendakaria kalitate botea ez izatea eskatu zuten herenegungo bileran, eta hala adostu dute azkenean. Zazpi lagunek osatuko dute epaimahaia:

▶ Jai Batzordearen lehendakaria.

▶ Udaleko ordezkari bat.

▶ Karrozetako eta konpartsetako bost —aukeratzeko—.

Sariak. Txapela izango da saria. Lehiaketan izena eman ez duten taldeak ez dira sarituko. Sailen arabera banatuko dituzte txapelak; guztira, zortzi izango dira:

▶ Karrozak egun bat.

▶ Karrozak bi egun.

▶ Plataformadun konpartsak egun bat.

▶ Plataformadun konpartsak bi egun.

▶ Konpartsak: lau txapel, azpisail bakoitzarentzat bana.

Diru laguntzak. Lehiaketan izena ematen duten guztiek jasoko dute diru laguntza. Horretarako, parte-hartzaileek taldearen eta karrozaren edo konpartsen argazkia aurkeztu behar dute udaletxean, 2005eko urtarrilaren 18ko 13:00ak baino lehen. Datu hauek agertu behar dute argazkiaren atzealdean: data, izen-emate zenbakia, izenburua, ikuskizunaren deskribapena eta arduradunaren izen-abizenak eta telefono zenbakia.

Udaleko ordezkariaren esanetan, ez dira dieta horiek finkatu oraindik, aurrekontuak onartu ez direlako. Dena den, aurtun «partida honetan igoera garrantzitsua» izan dela adierazi zuten: 9.000 euro gehiago. Karrozetako eta konpartsetako ordezkariak hori «gutxiegi» dela esan eta «Inauterietan beharrezkoa baino askoz gutxiago inbertitzen» duela leporatu zioten Udalarari. Inauteri aurretik eta ondoren emango diren partidetan ere ez ziren ados ja-

ri bileran: egun %25 ematen da Inauteri aurretik, eta karrozetako zein konpartsetako ordezkariak %75 eskatzen zuten; %50a eta %50a ematea proposatu zuen ondoren Udalak... Karrozetako eta konpartsetako ordezkariak biltzeko asmoa dute orain, eta haien artean adostutakoa aurkeztuko diote Udalarari.

Sari ematea. Epaimahaia Piñata Igandean emango du jakitera bere erabakia. Ondorengo egunotan banatuko dituzte sariak, ekitaldi batean.

Zenbait arau.

▶ Karrozetan eta konpartsetan ezin du publizitaterik agertu.

▶ Zezenak amaitutakoan 17:30erako erdigunera itzultzen ez diren karrozak eta konpartsek zezen-plaza inguruan gelditu beharko dute txarange kalejira pasatu arte.

▶ Karroza guztiek su-itzalgailu bat eman behar dute.

▶ Emanaldi eta ikuskizun guztiek 01:00etarako amaiturik egon behar dute. Bi ordutegi jasotzen zituen aurreko arautegiak: 12:00ak karrozentzat, eta beste guztiak 01:30ak. Baina, herriarrek ala eskatuta, ordu-tegi bakarria adostu zuten.

HERNANI OKINDEGIA

s u l a b e

ogi egin berriena

Telf.: 943 55 40 50 • **HERNANI**

ESKERTZA ▶

TERESA URBISTONDO ARROYO andere hil berriaren senideen partetik, eskerrak samin agurrari bidali zenuten eta hileta elizkizunetara etorri zineten guztiak.

Tolosa, 2004ko abenduaren 16a

GUTUN@K 

► izena eta herria adierazi; HITZAK gutunak mozteko eskubidea du

Zer motatako Ibarra nahi dugu?

Ikuspegi oso desberdinak dau-
de udal bat gestionatzerakoan,
hori oso garbi daukagu. Uztako
zinegotziok ez gaude interes
konkretuei atxikituta, herria
eraikitzea dugu helburu, *Herriak
du hitza eta erabakia, Herrian
hazi eta hezi, edo Ibarrek merezi
du* leloei lotuta gaudelarik. Lau
urtetan erakutsi dugun bezala,
herriaren alde lan egiten jarrai-
tzeko prest gaude, suertatzen di-
ren arazoei aurre egiteko gai iz-
naz. Azken lau urtetan udaletxe-
an egin dugun ibilbidea agerian
uzten duten zenbait datu aipa-
tzea interesgarritzat jo dugu:

-Euskararen normalakuntza bi-
dean dugun garrantzitsuak
eman ditugu (TEPE, HITZA, mer-

kataritza euskalduntzeko pla-
na...).

-Kultura mailan, herritarren
parte-hartzea eta taldeen dina-
mika bultzatzea izan dira gure
ahalegin nagusia, herritik jaso-
tako proposamenak sustatuz.

-Kiroletan, herriko kirol talde-
en parte-hartze eta aportazioei
esker eraikitako eraikuntza ber-
riarekin kiroldegiko eskaintza
zabaltzea lortu da.

-Baserri inguruan bizi diren
herritarren bizi baldintzak dui-
nak bermatzeko ere lanean aritu
gara (aurrekontuetan aurreikusi
nekazal eremuko inbertsioak,
Uzturrerako ur-hornidura sarea,
bide konponketak eta txukunke-
tak...).

-Auzo dinamikan, auzoetako
hiritartze integralak burutu dira
(Argindegi-Zume-Apattarreka
eta San Inazio auzoak).

-Zerbitzu mailako eskaintza
ere handitu egin da (ludoteka,
KZgunea, Haur Eskola, Musika
Eskola amankomunatu...).

-Ongizateari dagokionez, es-
kualdeko lan sustapenerako
zentroa eta langabetuentzako
lan poltsa sortu, Azkuen alokai-
ruzko 37 etxebizitza eta hiru
etxebizitza Gizarte Larrialdieta-
rako....

Etxebizitzak eskuratzeko ara-
zoak irtenbidea behar duela argi
daukagu, baina ez hala nola!
EAJ/EA taldeko buru den Con-
suelo Romeoren ustez, 600 exe-
bizitzen beharra omen dago Iba-
rren. Egun, 1.600 etxebizitza
daudela eta 4.350 biztanle ingu-
ru bizi garela jakinda, ez al da
desproporzionatu samarra?
(Kalkulo horien arabera herria
heren bat haziko litzateke). Esku-
ragarriak al dira ibartarontzat

40 milioitik gorako etxebizitzak?
Eta tolosarrentzat? Zergatik ez
dira saltzen herrian *salgai* karte-
la dioten etxebizitzak? Garestie-
giak al dira? (Kontutan izan be-
har da EAJ/EA koalizioa hain-
beste etxebizitza egiteko
oinarritzen den ikerketan behin
eta berriz aipatzen dela Ibarrek
Tolosa herriarekin duen gertuta-
suna).

Guk ere etxebizitzak eraikitzea
nahi dugu, baina jendearen be-
harrei erantzun egiten. Uztar-
ren ustetan, herrian zein behar
dauden jakiteko eta zer mota-
ko etxebizitzak behar diren eza-
gutzeko ezinbestekoa da herrita-
rren parte-hartzea bultzatzea.

Uztako zinegotzi baztertuok,
gaur egungo *apartheid* politikoa
jasanda, ezin dugu lan normali-
zatu bat burutu herriaren alde,
Udalean erabakitzeke ahalmena

lapurtu baitigute. Baina, hala eta
guztiz ere, herri programan jaso-
tako konpromisoetan berresten
gara eta egitasmoak aurrera ate-
ra ahal izateko lan egingo dugu,
herritarrok erabakiko dugularik
zer motatako herria nahi dugun.

Azkenik, Uztako kide baten eta
Consuelo Romeo alkatearen arte-
ko eztabaida publiko baterako
gonbitea luzatu nahi genuke, ba-
koitza bere taldearen izenean
zein herri eredu defendatzen
duen eztabaidatzeko eta propo-
samen konkretuak mahai gaine-
an jartzeko. Baita azaroak 23an,
EAJ/EAREN izenean HITZAN argi-
taraturiko gezurrez josiriko arti-
kuluko zenbait datu argitzeko
ere.

INAIA URKIZAR, MARI JOSE RUIZ,
AMAIJA BALZA, MIKEL IGLESIAS ETA
AINARA OTAEGI
AINARA OTAEGI
(UZTA PLATAFORMA) ► IBARRA

VILLABONA ► MUSIKA

Kantautorearen galderei entzunez

Patxi Saiz abeslari getariarrak
'Galdetzen' diskoa aurkeztuko du
bihar gauean Gurea aretoan

IMANOL GARCIA

Abenduko kultur ekitaldien
baitan, musikak bere artea
izango du bihar. Patxi Saiz mu-
sikari getariarrak *Galdetzen*
diskoaren aurkezpena egingo
du, 22:30ean hasita, Gurea are-
toan. Aurreko urtean argitara-
tu zuen Saizek disko hau, Bai-
gorriko Kulturan Diskak diske-
txearekin.

Ibilbide luzea du abeslari ge-
tariarrak musikaren munduan.
Ibai Rekondorekin murgildu
zen musikan. Euskal Kantu
Txapelketan parte hartu zuen
eta handik sortu zen Itziar Za-
morarekin taula gainean ari-
tzea. Gero Kazkabarra folk tal-
dearekin abeslari moduan ari-
tu zen eta azkenik bakarkako

FITXA ARTISTIKOA ►

Patxi Saiz. Ahotsa eta
gitarra.
Xabier Agirre. Alboka,
txirulak, gaita, baxua eta
ahotsa.
Xabier Azkarate. Perkusioa.
Juanlu Aranburu. Soinua eta
teklatura.

ibilbideari ekin zion. Bi maketa
grabatu ondoren, kalitatezko
jauzia egin du eta *Galdetzen*
diskoa grabatu du modu profes-
ionalean. Patxi Saizen ahotsa
eta gitarraz aparte, diskan ins-
trumentu ezberdinak azaltzen
dira: haizezkoak, perkusioa...
Eta zuzeneko emanaldian ere
soinu hori guztia nabari da.



Patxi Saiz getariarrak ibilbide luzea du taulen gainean, gitarra ondoan duela. HITZA


PATXI SAIZ ► ABESLARIA

«Musika melodikoa da nagusi diskan»

Kantautore getariarraren lehen-
engo kontzertua da bere az-
ken diskoarekin eskualdean.
**Nola definituko zenuke zure
burua?**
Kantua sortzaile eta hauen
abeslari ikusten dut nire bu-
ruan. Ez naiz akademitik pasa-
tako musikaria.

Eta 'Galdetzen' diska?
Musika melodikoa, erakarga-
rria da nagusi diskoan. Instru-
mentazio koloretsua du eta
nire ahotsa eta gitarra dira oi-
narri. Gaien aldetik, euskara,
gure herria, maitasuna... ditut
hizpide. Jokin Urain preso poli-
tikoaren eta Manex Erdozain-

tzi-Etxarten olerkiak erabili di-
tu, esaterako.
**Lehenengo kontzertua da es-
kualdean?**
Disko honekin bai. Beraz, eza-
gutuzen ez nautenei gonbitea
egiten diet. Une goxoa pasa-
tzeko ez ezik, hausnarketarako
ere tartea izango dute. ◀

 **ADUNAKO UDALA** IRAGARKIA

Adunako Udalak, 2004ko azaroaren 9an egindako Osoko Bilkuran, honakoa erabaki zuen:
Adunako Arau Subsidarioetako 3. Areako 3.3 eta 3.4 Hirigintz Exekuziozko Unitateko eta IIB 1.7 unitateko hiriritze obren lehen fasea adjudikatzeko lehiaketa ireki bat iragartzea.
Eskaintza mota: Hirurogeita hemeretzi mila zazpiehun eta laurogeita bost euro koma berrogeita hamabost zentimo (79.785,55.-€), BEZA barne.
Obra burutzeko epea: Sei hilabete.
Behin betiko bermea: Adjudikazio prezioaren % 4a.
Eskariak aurkezteko epea: Udaleko Erregistro Orokorrean, 09:00etatik 14:00etara, iragarki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita, 26 egun naturaleko epean. Epeko azken eguna larunbata bada hurrengo lanegunera luzatuko da.
Klausula Partikularrak, Gauzatze Proiektua eta Baldintza Pleguak interesdunen eskura daude, Adunako Udalaren Idazkaritzan eta Comercial Askar-en (P Vizcaya, 17 bajo Donostia).
Iragarki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita zortzi eguneko epean, Klausulei erreklamazioak aurkeztu ahal izango zaizkie, kasu horretan eskaintza atzeratu egingo delarik. Azken eguna larunbata bada, hurrengo lanegunera arte luzatuko da.
Aduna, 2004ko azaroaren 29a.-Arantza Aburua Alkorta, Alkatea.

ALTZO ▶ KULTURA

Jakinmina asetzeko ekitaldi ugari

Kultur Batzordeak, Loatzok eta Elordi elkarteak antolatu dituzte aurtengo 'IX. Olentzerotan jakinminez'-eko ekitaldiak



Iaz, euskalgintza izan zuten hizpide, besteak beste. O.ESKITXABEL

OLAIA ESKITXABEL

Gaurtik hasi eta larunbata bitarte ekitaldi ugari antolatu dituzte Altzon *Olentzerotan jakinminez* egitarauaren baitan; aurtun, bederatzigarren urtea da.

Kultur Batzordeak, Loatzok eta Elordi elkarteak antolatu dituzte aurtengo ekitaldiak.

Gaur, Loatzo musika eskolako ikasleen emandiaz gain, hitzaldia ere antolatu dute. *Altzoko herritarrek jauntxokeriaren kontra* gaiaren inguruan ariko dira David Zapirain eta Juan Carlos Mora, Aranzadi zientzia elkarteko kideak. Ondoren, tortila, txanpinoiak... jateko aukera izango dute bertaraten direnek.

Biharko protagonista bertso-larritza izango da. 18:30ean Imaz bertsolaria eskolako ikasleek *Altzo handia* izeneko

bertso-antzerkia eskainiko dute. Eta gauean, 22:00etan, Al-boka taldeak bertso zahar eta berri musikatuak eskainiko ditu. Besteak beste, kaleratu berri duten *Lau anaiak* diska-koko abestiak izango dira entzundagai Lizarbe etxepeko gelan.

Afariarekin agurra

Urtero bezala, herri-afariarekin emango zaie amaiera etzi *Olentzerotan jakinminez*-en baitan antolatutako ekitaldiei.

Afarian, arratsaldean egingo den lehiaketan prestatutakoa dastatuko dute. Aurtengo lehiaketan entsalada eta baserriko oilaskoa prestatuko dute lehiakideek; gaur amaitzen da izena emateko epea. 20:00etan aurkeztu beharko dute prestatutakoa eta epaimahaiak bere erabakia hartuko du. Parte-hartzaile guztiek oparitzoia ja-

EGITARAUA ▶

GAUR

18:30. Loatzo musika eskolako ikasleen emandiaz gain, Lizarbe etxepeko gelan.

20:00. *Altzoko herritarrek jauntxokeriaren kontra* hitzaldia. Udaletxeko ganbaran.

BIHAR

18:30. Imaz Bertsolaria eskolako ikasleek bertso-antzerkia egingo dute. Liazrbe etxepeko gelan.

22:00. Al-boka taldearen kontzertua.

ETZI

17:00. *Bertsotas* (ipuin antzeztuak) Lizarbe etxepeko gelan.

20:00. Entsalada eta oilaskoa prestatzeko lehiaketako platerak aurkeztu behar dira Elordin.

20:30. Herri-afaria Elordi elkartearen.

soko dute. Afarira joan nahi dutenek ere gaur izango dute azken aukera. Izena elkartearen bertan eman dezakete.

Afal-ostea Maixa Lizarribarren trikiritza eskolako ikasleek alaituko dute.

ALBIZTUR ▶ UDALA

Etarteko etxebizitzetan izen-ematea zabalik

Urtarrilaren 3an amaituko da izen-ematea; baldintza pleguak udaletxean daude ikusgai

O.ESKITXABEL

Etarte eremuan eraikiko diren 18 etxebizitzetan sustatzaileari Albizturko Udalak proposatuko dizkion pertsonak hautatzeko baldintza pleguak argitaratu dira. Hautaketa horretan parte hartzeko dokumentazioa eta puntuazio erizpideak, hala nola, gainontzeko baldintzak, aipatutako baldintza pleguetan jasotzen dira. Albizturko udaletxean, bulego orduetan eskuratu dezakete plegua interesatuek.

Etxebizitzetan izena eman

nahi dutenek urtarrilaren 3a bitarteko epea izango dute. Eskaera bakoitzean Udalaren esku jarri beharko dute interesatuek eskatzailearen helbide bat; gero, egin beharreko notifikazioak jakinarazi ahal izateko. Eskaerak eredu ofizialean gauzatu beharko dira; beharrezko eta lehiaketa fasean puntuatu ahal izateko dokumentazioa ere gaineratuko dute. Eskaerak, idazkaritzan aurkeztu behar dira.

Informazio gehiago Albizturko udaletxean eskuratu dezakete interesatuek.

ALEGIA ▶ GIZARTEA

Saharara bidaltzeko elikagaien bilketa hasi da

Elikagaiak, San Joan herri eskolan eta udaletzeko gizarte zerbitzuetan utzi daitezke

O.ESKITXABEL

Sahararen aldeko Euskal Karabanan bidaltzeko elikagaiak biltzen ari dira San Joan herri eskolan eta udaletzeko gizarte zerbitzuetan.

Eskatzen dituzten elikagaiak: hegaluzea oliotan, azukrea eta konpresak.

Elikagaiak biltzeko kanpai-

na, datorren asteartea, abenduaren 21a, bitarte luzatuko da.

«Herenegun jarri genituen kalean bilketaren inguruko kartelak. Oraindik paketetxo bat besterik ez daukagu. Iaz, gauza bera gertatu zen; jende gehiena azken egunetan etorri zen», azaldu dute gizarte zerbitzuetatik.

iragarki laburrak ▶



Laskorain, 3 TOLOSA

ETXEBIZITZAK

Aia. Naturaren erdian, bi logelako apartamendu berriak, garajearekin, eta duplex etxebizitza garajearekin. Mandio. 669 871909.

Aia. Duplex, 90 m², garajea itxita, erakuntza berriak. Mandio. 669 87 19 09.

Alegia. Etxebizitza berriak bi eta hiru logelakoak. Mandio. 669 87 19 09.

Berrobi. 90 m²-ko etxebizitza, sukaldea, igogailua, 12 m²-ko

ganbara eta garaje marrarekin. Mandio. 669 87 19 09.

Berrobi. 90 m². 41.000.000 pta.

Corella. Ebe abiki rustiko berriak, konstruktorek zuzenean kudeaturikoak. Porbearekin, 2 eta 3 gelakoak, bainua eta sukaldez hornitua. 800, 1.000 eta 1.200 m²-ko terrenoarekin. Piszina eta guzti. Eta gainera batzuk bimeneta dotorea. 13.500.000 pta. Mandio.

Corella. Maestro Guridi. Bizitzera sartzeko, 3 logela, eguzkitsua. **Ibarra.** Atikoa, terraza 40 m², etxebizitza polita eta garaje itxiarekin. **Ordizia.** Etxebizitza berriak, familia bakarrekok. Eraikitako azalera: 242 m². Mandio. 669 87 19 09.

Tolosa. Santa Klaran 111 m²-ko etxebizitza salgai, 4 logela, egongela handia 25 m²-koa, igogailuarekin.

Tolosa. Korreo kalean etxebizitza batzuk, 70 m²-ko duplexa salgai. 15 m²-ko terrazarekin, teilatu berriak, berogailuarekin. 26.000.000 pta.

Tolosa. Larramendi kalean 65 m²-ko etxebizitza, sukaldea altzariez hornitua, kanpo aldera begira, 2 logela, igogailua eta trastelekua.

Tolosa. Foru etorbidean, leku hobereanean, erabat kanpo aldera, atikoa, 85 m² + 50 m²-ko terraza. Bista ederra. Sukaldea, 3 gela, egongela, bainua. trasteroa, berogailua eta igogailuarekin. 68.500.000 pta. 669 87 19 09.

Tolosa. lurre auzoan. 33 m²-ko txokoa, 10.000.000 pta, tarteplantan.

Tolosa. Korreo kalean, bizitzera sartzeko berriutako apartamendua salgai, 29.000.000 pta. Mandio. **Tolosa.** Korreo kalean, bi gelako

etxebizitza, polita, sartzeko prest. 29.000.000 pta. 669 87 19 09.

Tolosa. Korreo kalean, bi logela, berogailuarekin. 29.000.000 pta.

Tolosa. Zumalakarregi. 80 m². Berritzeko.

Tolosa. Amaro auzoan, etxebizitza salgai 80 m²-rekin, igogailuarekin, 37.500.000 -40.000.000 pta.

Tolosa. Pablo Gorosabel. 90 m². Egongela 27 m²koa, bi balkoi, ganbara... Mandio. 669 87 19 09.

Zaldibia batxilerra. 110m², bizitzera sartzeko; pisu ezin hobea.

LOKALAK

Tolosa. Nafarroa etorbidean 71 m²-ko lokala salgai. Mandio. 669 87 19 09.

Tolosa. Leidor zinema inguruan

garaje marra alokairuan. Mandio. 669 87 19 09.

Tolosa. Errementeari kalean lokal komertziala alokairuan. 70.000 pta. Mandio. 669 87 19 09.

Tolosa. 428 m²-ko pabiloi berria, ate bikoitzarekin eta sarbide egokioa, saihesbide ondoan. 669 87 19 09.

Tolosa. Lokalak salgai, Laskurain kalean, Rondilla kalean, Errementari kalean, Trianguloan eta Nafarroa etorbidean. Mandio. 669 87 19 09.

Villabona. Lokal berria, 35 m², sukaldez hornituta, terrazarekin. 16.000.000 pta.

LURSAILAK

Nekazaritzarako 10.000 m²-ko lursaila salgai nekazaritzarako. Mandio. 669 87 19 09.

ARESO ▶ HERRILANAK

Eskolako teilatua erabat berrituko dute laister

Lanak dirauten bitartean irakasle eta ikasleek Erasonen izanen dituzte eskolak



Teilatua oso-oso berritu behar dute eta jolastokiaren drainaketarako hoditeria ere jarriko dute. JAIONE ASTIBIA

JAIONE ASTIBIA

Aresoko eskolan, teilatuan lanean hastera doaz laister eta honekin batera, jolastokiaren drainaketa egiteko ere baliatu dira.

Eskolako teilatua, erabat berritu behar dute azkenik. Ha-

sieran, teila berritzeko aurreikuspena soilik egin bazuten ere, dena berritu beharra etorri zaio Udalari, han bertan teilaurearen egoera ikusi dutenean. Horrela, dagoen teila guztia zaborretara bota, eta azpiko lata, kapirio eta zuraje guztia ere berritu egingen dute, «behin

hasiz gero, behar den guztia berria sartu eta erreparatu ona emanez», adierazi dutenez. Teilatua berritzeak, hegatzetako uraren hoditeria ere halaxe egitea eskatzen du eta horiek egoki eta txukun margotzea ere bai. Beraz, ez ustekoan, teilatua berri-berria egin behar

dute eskolan. Lanak eraikuntza osoari dagozkie, noski.

Honekin batera, eskolako jolastokian ere egokitzapen batzuk egiteko baliatuko dute aukera. HIRZAK jakin izan duenez: euria egiten duenean batez ere, urarekin izaten dituzten itxurak eta ixurketak ekiditeko, jolaslekuaren drainaketarako, alegia, eraikuntza beraren kontratit, tutua sartu behar dute eta errepara bideratu.

Proiektu honen aurrekontua 125.404,21 eurokoa da eta lan hauek egiteko «kopuru horren %60aren %65eko diru laguntza eskuratuko da Nafarroako Gobernunik», jakitera eman dute-nez.

Lan hauek irauten duten bitarteko «behin behineko eskola» egokitu dute bestalde. Erasonen etxean ariko dira eskolak ematen, eraikuntza hau lehen ere, udaleku gisa erabiltzen dena izaki. Dena den, Hezkuntzako ikuskaria etortzeko zen, kokapen horren egokiera ikusi eta oneritzia ematera.

LEITZA ▶ HEZKUNTZA

Erleta eskolak saria jaso du Gasteizen, haurren eskubideen defentsan egindako esketxarengatik

Gasteizko lehendakari izan dira jasotzen eta ETBko 'Betizu' programan igorri dute esketx saritua; antzerkirako material tekniko berria erosteko baliatuko dute lortutakoa

J. ASTIBIA

Leitzako Erleta eskolak saria jaso zuen astearte arratsaldean Gasteizen, EAEko Lehendakari burutu zen giza eskubideen inguruko sari banaketako ekitaldian.

Ekitaldi horretan SOS arrazakeria taldearen sortzaile izan zen Koro Erdoziari, Giza Eskubideen Renne Cassin hilondoko saria eman zioten. Baina, besteak beste, «Eskubide guztiak, guztiontzat» leloarekin, giza eskubideen defentsan, bakoitzak arlo bana landuz, Euskal Herri osoko ikastetxeek parte hartu izan duten sariketara ere burutu zen eta horrela, Leitzakoek «haurrek beren iritzia ere kontutan hartzeko duten eskubideaz» egindako eske-

txak jaso zuen saria: «Antzerkirako, soinu ekipoa erosteko erabiliko dugu», zioten eskolatik.

Asteartean *Betizu* programan bota zuten esketxa, urria-

ren erdialdean grabatu zuten: «Kamara, argi, ... tekniko mordero eta egun guztian arituko zirene grabaketan, azkenean bi minutuko izanen zen esketxa egiteko», argitu zuten atzo-

koan, eskolan bertatik. Gidoia programatik igorri bazuten ere, ikasi eta entsaio dezente egin omen zuten aurreko egunetan, «akatsik gabe atera zen arte». Gustura itzuli ziren.

hilberriak ▶

eskolak hartzen dira: 19:00ak arte ▶ 687 53 02 58 ▶ tolasaldean@tolosaldeko-hitza.info



Joakina Garmendia Garmendia

andrea

(Jose Martin Jauregi Oiarbideren alarguna)



Atzo hil zen, 89 urte zituela, Elizakoak eta Aita Santuaren Bedeinkapena hartu ondoren.

- Goian bego -

Haren arimaren zuzendaria: Daniel Eskisabel; seme-alabak: Joxe Antonio eta Manoli Jauregi, Patxi eta Feli Ezkurdia, Juntxo eta Manoli Irizar, Koldo eta Izaskun Carrera, Eduarne eta Joxe Olaizola, Kontxi eta Martin Eceizabarrena; bilobak: Arkaitz eta Begoña, Iñigo, Joseba, Maitane, Amaia, Jon, Aitziber eta Karlos, Ander, Larratiz eta Ane; birloba: Haitz; ahizpa: Ines; zaintzaileak: Feli Larreta; ezkon anai-arrebak; ilobak, lehengusuak eta gainerako ahaideak.

Haren arimaren alde otoi bat eskatzen dizuete eta arren etor zaitzela GAUR OSTEGUNA, arratsaldeko BOSTETAN, Baliarraingo ANDRE MARIAREN ZERURATZEA parroki elizan, gorpua bertan dela egingo den hiletara. Aldez aurretik, mila esker.

oharra ▶ Gorputz Beila Tolosako Funeraria Vascongada Beilatokian dago, gaur 16:30ak arte.

BALIARRAIN, 2004ko abenduaren 16a

TELEFONOAK ▶

LARRIALDIK

▶ 112

Alegialdea. Osasun z.: 653212
Anoetaldia. Medikua: 65 23 39
Asteasu. Medikua: 69 24 23
Berastegi-Elduain. 68 33 61
Bidegoian. Medikua: 68 11 34
Ibarraldia. Osasun etx.: 672411
Ikaztegieta. Medikua: 65 33 29
Irura. Osasun zentroa: 69 07 20
Leitza. Osasun z.: 948 510800
Lizartza. Medikua: 68 20 77
Tolosa.
 ▶ Anbulatorioa, larrialdia: 461111
 ▶ Asunzion klinika 67 57 99 - 67 53 90 (larrialdia)
 ▶ Udaltzaingoa: 67 58 58
 ▶ DYA: 67 25 36
 ▶ Gurutze Gorria: 67 48 88
Villabona. Anbulat.: 00 69 70
Zizurkil. Aiztondo zerb.: 693930

GARRIAOK

▶ Renfe Tolosa: 65 28 89
 ▶ Donostiako autobusa: 36 17 40
 ▶ Taxis: 67 04 20
 ▶ Taxis (Leitza): 608 873016

GUARDIAKO FARMAZIAK

Gaur. Olarreaga, A., Korreo, 2, (Tolosa). 943 670 128
 Larraia M.I., Elbarren, 95, (Leitza). 112

TOLOSALDEKO HITZA

Publizitatea. 661 67 88 18.
 tolasaldean_publici@tolosaldeko-hitza.info

Tolosa. 687 41 00 82 - 687 41 00 33.

tolosa@tolosaldeko-hitza.info

Villabona-Aizt. 687 41 00 22.

villabona-aiztondo@tolosaldeko-hitza.info

Anoetaldia. 687 41 00 22

anoetaldia@tolosaldeko-hitza.info

Ibarraldia. 687 41 00 32.

ibarraldia@tolosaldeko-hitza.info

Alegialdea. 687 41 00 34.

alegialdea@tolosaldeko-hitza.info

Leitzaldia. 687 41 01 18.

leitzaldia@tolosaldeko-hitza.info

iragarki laburrak ▶

LANA

Sukaldaria. A steburuetan lan egiteko tabernarako sukaldaria behar da. 943 691 933.

Abeltzaina. Pertsona bat behar da lau orduz esne behi ikuilu baten lanean aritzeko. Beharrezkoa da autoa eta esperientzia. Interesatuak deitu 665 73 33 56 telefonora.

SALGAI

Soinu ekipoa. Soinu ekipoa osoa salgai. Argibidetarako, deitu: 943 67 48 06 / 943 11 77 38.

Etxebizitza. Etxea salgai Tolosako Alde Zaharrean. 90 m². Partikularra. 943 676 214.

Elektrogailuak. Labadora berria eta sukalde bitrozeramika labarekin salgai. 639 56 71 59.

Harpidedunei banatua ▶ 2004ko abenduaren 16a, osteguna ▶ II. urtea

'HITZA' LAGUNTZEN
DUTEN ERAKUNDEAK

udalak: Aizolasiete, Adura, Albitur, Alege, Alkiza, Alzo, Amerleña,
Anoeta, Bakarran, Balsamiza, Baratzgi, Eskain, Herrialde, Ibarra, Inza,
Larribi, Leizorri, Lizarra, Omeñaca, Omeñaca, Sola, Vilatorrada, Zuzarte
besteriak: Leizoldeko Euzkara Batzordea

Gipuzkoako
Foru
Aldundia

Eusko
Jaurjaritza
Kultura Salla

GAURKO
EGURALDIA

goizez
 arratsaldez

beroena **13** hotzera **10**

BIHARKO
EGURALDIA

goizez
 arratsaldez

ELURRA
ARALAREN

Guardetxe:
gaur: ez / bihar: ez

Pagomari:
gaur: ez / bihar: ez

HITZA-KO BEZEROEN
ARRETA ZENBAKIA
(zalantzak, harpide egiteko...)

943
30 43 46

AGENDA ▶

DEIALDIAK

Alegia. Saharara bidaltzeko elikagaiak biltzeko kanpaina abenduaren 21a bitarte. San Joan eskolan eta udaltxeko gizarte zerbitzuetan.

Alegia. Helduen Hezkuntza Iraunkorreko eskolak urtarrilaren 10ean hasiko dira. Interesatuak deitu: 943 672660 / 943 654768.

Gatzelu. Ardi jate afaria bihar 20:30ean Kontzeju tabernan eta ondoren kontzertua Petti bakarlariarekin.

Tolosa. Laskorain Ikastolako ikasle ohien afarian eman zuten bideoa eskainiko dute bihar 20:30ean Kultur Etxean.

Orexa. Guraso Eskola: *Afektibitatea, ama eta aita izan gaia* landuko dute. Segoretxen. 17:30-19:00.

HITZALDIAK

Alegia. Jaizkibelgo superportuari buruzko ikus-entzunezkoa eta hitzaldia Gaztehean. 21:00.

Altzo. *Altzoko herritarrak jaunbokeriaren kontra* hitzaldia udaltxeko ganbaran. 20:00etan.

Ibarra. *AHTak gure ingurunean egingo dituen kaletak eta onurak* hitzaldia. 19:30ean, Gaztehean.

Tolosa. Joxe Manuel Odriozola altzotarraren hitzaldia: *Euskalgintzako hainbat iritzi.* 19:30ean udaltxeko batzar aretoan.

Zizurkil. Amagoia Murumendiarrak. Bihar 17:00etan Elizpe jubilatutako elkartean. Ondoren merienda izango da.

MUSIKA

Altzo. Loatzo musika eskolako ikasleen emanaldia Erretoretxean. 18:30ean.

Anoeta. Loatzo musika eskolako ikasleen emanaldia, bihar. Elizan, 19:00etan.

Irura. Loatzo musika eskolako ikasle irurarren emanaldia. Elizan, 19:00etan.

ZINEMA

Ibarra. *Generación robada.* 21:45ean Gaztehean.
Tolosa. *Memories of murder.* Leidor zineman 21:30ean.

Naturako usain gozoez

TOLOSA ▶ Atzo zabaldu zen Aranburu Jauregian 'Bete sudurrak' erakusketa; esentzia desberdinak usaintzera gonbidatzen dute La Caixak eta Udalak



Udal agintariak eta herritarrak antolatzaileen azalpenak entzuten, atzo Aranburu Jauregian. INIGO TERRADILLOS

ERREDAKZIOA

Usain festa dago egun hauetan Aranburu Jauregian. Jasmin, geranio, bergamota, limoia, erromeroa, marrubia... 58 usain desberdin guztira. Eta beste bi norberak asmatzeko.

«Jasmina oso baliotsua da, kolonietako marka onenek erabiltzen dute, baina oso proportzio txikian, osagai gehie-



60 esentzia eta lurri natural desberdin usaindu daitezke. I.TERRADILLOS

nak kimikoak izaten baitira», esan zuen La Caixako prentsa arduradunak. Garai bateko usaina ez genukeela jasango azaldu zuen «jaboirik ez zego-elako, beti erropa berarekin ibiltzen zirelako...» eta ruda erabiltzen omen zuten usain txar horiek estaltzeko.

Hemen geranioa XVIII. mende arte ez zela ezagutzen esan zuen aurkezpenean. Chanel 5en oinarriak diren bergamota eta limoia ere usain daitezke erakusketan, beste usainen artean.

«Duela gutxi momia egipziar bat disezionatu zuten eta sekulako erromero usaina zabaldu zen, hainbeste urte pasa eta gero. Balsamatzeko erabiltzen zutela frogatzen du horrek», dio Caixako ordezkariak. Bukatzeko, garuna garatzen dihoan neurrian usaimena ere garatzen dihoala erantsi zuen.

Urtarrilaren 15a bitarte duzue aukera. Caixa Fundazioak eta Udalak antolatuta. Eta bukaeran, gustuko kolorea aukeratzeko zure izaeraren berri eta gustuko duzun usaina emango dizu penal batek. Ikusmena eta entzumenaren mesedetan, ahazturik daukagun zentzumenaren berreskuratzeko.

ZORION AGURRAK ▶



HITZA,

zorion agurren tarte

Urtebetetzeak,
urrezko ezteiak,
ezkontzak, jaioberriak...
zoriontzeko, etorri:

HITZAren egoitzetara:
Araba etorbidea, 5 behea - TOLOSA
Udaltxeko bulegoa - LEITZA

Mesedez, argazkia
bi egun lehenago ekarri.
Mila esker!